

Isabel eta Pedro, XVI. mendeko maitaleak



Zer egingo zenuke gurasoek zure ezkongai onartuko ez balute?

Euskal Herrian ere baditugu gure Romeo eta Julieta. Pedro eta Isabel deitzen ziren, eta Gipuzkoan bizi izan ziren XVI. mendean.

Bi gazteen maitasunezko istorioa jakin nahi duzu?

Euskadi Irratiko *Baipasa* saioan

Aitziber Makazagari egindako elkarrizketa entzun beharko duzu.

Beasaingo Igartza monumentu-multzoko arduraduna dugu, eta audioan kontatzen dizkigu Isabel eta Pedroren gorabeherak.



Irudia: Beasaingo Igartza monumentu-multzoko ostatua.

Egilea: Anitxu. Creative Commons (CC BY-SA 4.0)

<https://labur.eus/npl6i>

Audioa entzun ondoren lotu ideiak eta pertsonaiak.


	Isabel	Pedro	Ana
Azkoitiarra zen.			
Ezkonduta egin zen.			
Ume zela hil zitzaion aita.			
Mutrikun bizi izan zen.			
Bitartekari lanak egin zituen.			
Euskara zekien.			
Oinordeko bakarra zen jaiotzetik eta ezkutuan ezkondu aurretik.			
Epaiketara ez zutela ihes egitera behartu adierazi zuen.			
Ez zen zahartzarora heldu.			
Beasaingo Igartza monumentu-multzoko jabea izan zen.			
Beasaingo Igartza monumentu-multzoan aldaketak egin zituen.			

ERANTZUNAK

	Isabel	Pedro	Ana
Azkoitiarra zen.		X	
Ezkondu egin zen.	X	X	
Ume zela hil zitzaion aita.	X		
Mutrikun bizi izan zen.	X		X
Bitartekari lanak egin zituen.			X
Euskara zekien.	X	X	
Oinordeko bakarra zen jaiotzetik eta ezkutuan ezkondu aurretik.	X		
Epaiketari ez zutela ihes egitera behartu adierazi zuen.	X		
Ez zen zahartzarora heldu.		X	
Beasaingo Igartza monumentu-multzoko jabea izan zen.	X	X	
Beasaingo Igartza monumentu-multzoan aldaketak egin zituen.	X		



Irudia: Isabel Lobiano kalearen plaka Mutrikun.
Egilea: Anitxu. Creative Commons (CC BY-SA 4.0)



Irudia: Isabel Lobianoren sinadura
Euskadiko Artxibo Historikoan
Creative Commons (CC BY-SA 4.0)

TRANSKRIPZIOA

(trosta-hotsa)

Esataria 1. Euskal Romeo eta Julietak euren ihesaldian erabili zuten zaldia entzuten ari zarete.

Esataria 2. Nortzuk dira euskal Romeo eta Julieta?

Esataria 1. Ba XVI. mende-bukaerako bikote gazte bat izan zen. Neska, Isabel de Lobiano. Erdi ermuar erdi mutrikuarra zen neska. Eta mutila, Azkoitiko Pedro de Idiakez.

Esataria 2. Eta zergatik euskal Romeo eta Julieta?

Esataria 1. Euren historiarekin paralelismoak dituztelako, ez? Ihesaldi baten ostean ezkutuan ezkontzea erabaki zuten, Isabelen amak ez zuelako harreman hori batere onartzen... Bueno, hobe historiaren amaiera orain ez kontatu, eta hasieratik gertakizunak nolakoak izan ziren kontatzea, ezta?

Eta horretarako Aitziber Makazaga, Beasaingo Igartzaga monumentu-multzoko arduraduna daukagu. Kaixo, Aitziber.

Aitziber Makazaga, Beasaingo Igartzaga monumentu-multzoko arduraduna. Bai. Kaixo, Arratsalde on.

Esataria 2. Kaixo, Aitziber. Zer moduz?

Aitziber Makazaga. Ondo. Ondo.

Esataria 2. Ermua, Azkoitia aipatu ditugu. Baina Beasaingo Igartzak zer harreman dauka?

Aitziber Makazaga. Hobe da istorioak hasieratik hastea, ez? Eta Isabelen eta Pedroren arteko amodio-istorioa Mutrikun hasten da urte batzuk lehenago.

Esataria 1. Maitasun idealizatu bat izan zen ez zutelako elkar ezagutzen, ezta? Isabel komentu batean zegoen eta!

Aitziber Makazaga. Bai. Horrelaxe da. Isabelen aita berak bederatzita urte zituela hil zen. Eta amak Mutrikuko Santa Katalinako komentuan sartu zuen etorkizunerako prestatu eta babestua egon zedin. Bitartean, amaren asmoa alabarentzat ezkontzeko gizon egoki bat aurkitzea izan zen. Hala ere, Pedro Isabeli komentura eskutitzak bidaltzen hasi zen eta hor, hortxe sortuko da beraien arteko amodiozko maitasuna.

Esataria 2. Hala ere, komentu batean egonda, norbaitek lagundu beharko zion, ez?

Aitziber Makazaga. Bai. Halaxe da. Isabelen irakaslea, Ana Urrutia moja zen, eta idatzi eta irakurtzen erakustez [irakasteaz] gain, ba bikote gaztearen arteko eskutitzak elkarri pasatzeko lanak ere egiten zituen. Eta baita ere esaten da komentuko gezi-leihoan ere elkar topo egiten zutela eta horietako batean elkarri ezkontzeko zin egiten die [diote], eta, bueno, hortxe baita ihesaldia antolatzen dute.

Esataria 2. Isabelek zenbat urte zeuzkan?

Aitziber Makazaga. Ba, Isabelek 13 urte zituen.

Esataria 2. Eta garai hartan adin hori normala al zen ezkontzeko?

Aitziber Makazaga. Bai. Esango dugu baietz. Kontuan hartu behar dugu Isabel eta Pedroren familiak Gipuzkoako bi familia aberatsenetakoak zirela, eta komenientziatzko ezkontzak ere askotan gertatzen ziren.

Ihesaldian Pedroren familiaren eta lagunaren laguntza izan zuten.

Esataria 1. Bueno, beraz, Aitziber. Isabelen ama ez, baina idiaketzarrak pozik zeuden bikotearekin, ezta? Isabel de Lobiano alaba bakar aberatsa zenez gero, asko gustatu zitzaion, ez?

Esataria 2. Baina hau benetako historia da edo kondaira?

Aitziber Makazaga. Ba historia ikaragarria da. Benetan gertatutakoa da, eta gainera, esan dezaket beraien arteko amodiozko eskutitzen baten zatiak ere aurkitu direla. Euskaraz idatzita daude.

Esataria 1. Bueno, orduan, bikotea ezkondu zen Azkoitian, bi egunen bueltan, baina ezkontza hau ez zitzaion batere gustatu Isabel de Lovianoren familiari, ezta?

Aitziber Makazaga. Hori da. Isabelen amak, oso-oso haserre, auzitara jo zuen, eta izugarrizko liskarra sortu zen bi familien artean. Bere alaba bahitu egin zutela esaten zuen momentu oro, eta bueno, ba horren harira urte eta erdiko epaiketa luze bat ospatu zen, eta Isabelek berak aitortu zuen ez zela bahitua izan eta bere borondatez ezkondu zela Pedrokekin.

Esataria 1. Bueno, bahiketa baino maitasun sakon batek eragindako ihesaldia izan zela berretsita gelditu zen. Eta goazen orain aztertzeraz Isabelek eta Pedrok elkarrekin zituzten ondasunak zenbatzera, ze(ren) familia ere aberats eta boteretsua handia [oso boteretsua] bihurtu ziren.

Aitziber Makazaga. Bai. Hori da. Hasiera batean Pedro ez zen idiaketzarren ondasunak jasoko zituen. Baina bere anaia hil egin zenez ba jasoko du Igartzaga monumentu-multzoa, momentu honetan garen gune hau... Bikotearen esku denbora gutxi izan zen. Izan ere, Pedro 1603an, oso gazterik, hil egin zen, eta Isabel geratu zen ondasun guztien jabe. Eta bueno, Igartzaga monumentu-multzoa 1611n, bertan zegoen dolare txiki bat handitu egin zuen eta honekin benta, benta jartzea erabaki zuen. Eta bueno, garai hartarako proiektu oso berriztatzailea diseinatu zuen...

Esataria 1. Hau emakume ekintzailea! Isabelen historia irakurri nahi duenak nobela moduan, esan, Jose Antonio Azpiazuren Historia de un rapto liburua ere badagoela. Ba hauxe da dena, Olaia.

Esataria 2. Bai. Egia esan, oso istorio polita ekarri duzue.